

2011ko EPE HAUTATZE-PROZESUA

OHAR INFORMATIBOA

I. Eranskinean ageri direnek (**destino-aukera duten izangaiak**), oinarri orokorretako 14. oinarriaren arabera, honako **ekintzak** egin behar dituzte, izangaien zerrenda duen ebazpena web orrian argitaratu eta **hurrengo 15 egun balioduneko epean**:

1º **Destino-aukeraketa** web orrian. Behar diren [azalpenak](#) ematen dira destino-aukeraketa elektronikoa web orri honetan egin ahal izateko.

2º **Zita eskatzea Osakidetzako Prebentzioko Zerbitzuak azterketa medikoa egin dezan.**

Hautaketa Zerbitzutik interesdun bakoitzari jakinaraziko dio , izena emateko eskabidean adierazitako posta elektronikoa edo telefonoaren bitartez, zein zentroan eskatu behar duen azterketa egiteko zita.

Zentroak ezarriko dizu azterketa hori zein egunetan egin.

3º **Baldintzak eta meritua egiaztatzen dituen dokumentazioa balioztatu/entregatzea.** Interesdunen eskura dago web honetan [dokumentazioa entregatzeko eredu](#).

- Destinoaz jabetzeko aukera duten Osakidetzako langileek bere zerbitzu-erakundeko Pertsonaleko Zuzendaritzan eskatu behar dute zita dokumentazioa balioztatzeko.
- Osakidetzako langile ez direnek, izapide horiek Erakunde Zentraleko Hautaketa Zerbitzuan egin behar dituzte.
- Dena den, derrigortasun-data iraganda duten lanpostuaz jabetzeko, euskarako hizkuntzaeskakizunaren fotokopia konpultsatua bidali behar da, baldin eta eskatutako hizkuntza-eskakizun hori lehenik ez badago Osakidetzaren esku (oinarri orokorretako 14.2 oinarria), eta baita homologazio- edo baliokidetzaren prozesuaren ostean lortutako deialdian eskatzen den titulazioa ere (6.2.c oinarria).

Edozein interesdunek izangaien zerrendaren aurkako erreklamazioa aurkez dezake, izangaien zerrenda duen ebazpena argitaratu eta hurrengo 15 egun balioduneko epean. Horretarako, izangaien zerrendaren aurkako [erreklamazio-eredu](#) bat dago web honetan (lotura).